



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko azaroaren 29a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:02 **BUKATZEKO ORDUA:** 21:15

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Angel del Hoyo Bravo, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Aizpea Ubegun Manterola zinegotzia (EH Bildu) 20:15ean sartzen da bilkurara, udalbatzarrak gai-zerrendako 1. gaia aztertu eta erabaki ondoren.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 7/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 8/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren aurrekontu propioari dagokion 9/2016, zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea; espedientea kreditua gehitzeko modalitatean egina dago.
- 4.- Onartzea, egoki bada, aurreko urteetako eskubide onartuei baja ematea, deuseztapenagatik
- 5.- Onartzea, egoki bada, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren estatutuen aldaketa.
- 6.- Onartzea, egoki bada, baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoen orria, Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratazio publikorako.
- 7.- Baimena ematea, egoki bada, Orioko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko hirugarren batzuei.
- 8.- Baimena ematea, egoki bada, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak lagatzeko hirugarren batzuei.
- 9.- Onartzea, egoki bada, adierazpen instituzional bat datorren abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizuna dela-eta.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

- 1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 7/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.**



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 7/2016 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 162.396 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 24an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu) eta Igoa (EH Bildu), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 7/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 162.396 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAUURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailatza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

Emandako botoa azaltzeko, Miriam Uranga zinegotziak (Orain) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak ez duela gai honen bozketan parte hartu eta ez duela parte hartuko, ezta ere, gai-zerrendako 2. eta 3. gaien bozketan, honako



arrazoiagatik, besteak beste: oraindik ez dakitelako zenbatekoa den hondakin solido urbanoen bilketaren eta kale-garbiketaren zerbitzuen adjudikazioagatik aurrekontuan sortu den soberakina: udal diruzaintzaren txosten batean 70.000 euroko soberakina aipatzen da; baina, benetan, 110.000 eurokoa da. Adierazten du, baita ere, kreditua aldatzeko espediente hau ez dela adostu udaleko talde politikoen artean eta, beraz, ezin izan direla lehentasunak markatu inbertsiotan; nolanahi ere, adierazten du bere talde politikoa ados dagoela Mutiozabalen, udal kanpinean eta Baxoalden planteatutako inbertsioekin.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du kreditua aldatzeko espediente honetan Obra eta Zerbitzuetak batzorde informatzailean alde aurretik diktaminatutako aurrekontu-partidak sartu direla.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa baiezko botoa eman duela kreditua aldatzeko espediente hau onartzeko; baina bat datorrela Miriam Uranga zinegotziak esandakoarekin.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 8/2016 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITUA GAITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2016 zenbakidun espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 35.542 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 24an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 8/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua gaitzeko modalitatean egina dago eta 35.542 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailatza



b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN AURREKONTU PROPIOARI DAGOKION 9/2016, ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA; ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2016 zenbakidun espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 146.932 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 24an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ), Bello (EAJ), Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren 2016ko aurrekontuari dagokion 9/2016 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egin dago eta 146.932 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, arau hauen arabera:



a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Uranga (Orain) eta Iparragirre (Orain) zinegotziek ez dute bozketan parte hartu.

Era berean, udalbatzarrak udal kontu-hartzaileak egindako txosten baten berri jasotzen du. Txostena aurrekontu-egonkortasunari, iraunkortasun finantzarioari eta gastuaren erregelari buruzkoa da, eta bertan honako hau ondorioztatzen da: kreditua aldatzeko espediente hau ikusita, ez dira betetzen aurrekontu-egonkortasuneko eta gastuaren erregelako helburuak, baina betetzen da iraunkortasun finantzarioko helburua.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AURREKO URTEETAKO ESKUBIDE ONARTUEI BAJA EMATEA, DEUSEZTAPENAGATIK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udal kontu-hartzaileak egin du proposamena eta honela dio, hitzez hitz:

2015eko itxierako resultak-hondartzako txiringitoak					
(Z.Z -zergabilketa zerrenda)					
B.- Baxa emateko proposamena					
KONTZESIO ADMINISTRATIBOAK-HONDARTZAKO ERAIKINAK					



Urtea	Zenbatekoa	R kopurua	R	Erreziboaren zenbatekoa	errezibozkia.	Norena	Baxaren zergaitia
	31.102,72						2008an azkeneko notifikazioa
2004		31.102,72	158/2004	31.102,72	8	J.Joaquin Goicoechea-	Zergabilketan baxa emana.
						Hondartza 3 zkidun.txiringitoa	Data baxa 40/2015
	37.762,35						2008an azkeneko notifikazioa
2005		37.762,35	307/2005	37.762,35	5	J.Joaquin Goicoechea-	Zergabilketan baxa emana.
						Hondartza 3 zkidun.txiringitoa	Data baxa 40/2015
	38.907,47	1064,36	333/2008			Ardora Antilla,S.L-2002ko lik.	
2008		37843,11	379/2008	43.898,01	1	Ardora Antilla,S.L-2008 kanona	Zergabilketan baxa emana.
		bez-a aparte		bez barne			Data baxa 40/2015
	54.582,15		506/2009				
2009		Batzarra 2010eko urria:					BAXA txostena 2016.07.05
		%15eko beherap. Onartzen du					Zergabilketan baxa emateko:
		43.909,10	+bez	43.909,1+bez	1	Ardora Antilla,S.L-2009 kanona	Ogasunak 2015ean bidali du
		10.673,05	+bez	10.673,05+bez	2.2	Xabier Urretab.-2009 kanona	kobraezina bezala
	72.492,17*						
2010		36.378,40	529/2010	36378,4+bez	1	Ardora Antilla,S.L-2010 kanona	BAXA txostena 2016.07.05
*bez aparte		25.230,17	529/2010	25230,17+bez	2	Xabier Urretab.-2010 kanona	Ogasunak 2015ean bidali du
%16 ekaina bitarte, gero %18a						(Irailak 12 arte)	kobraezina bezala
		10.883,60	883/2010	10883,60+bez	5	Xabier Urretab.-2010 kanona	
				%18a		(Irailak 13tik-kontratu berria)	
2014		417,57	1013/2014	417,57	5-frak.3	Txuriyabeltz-2013 kanona lik.	Likidaziotik sorturiko diferentzia
Guztira: 235.264,43 + BEZa + erretekoak							

Idazkari—kontu-hartzaileak hartzen du hitza, Miriam Uranga zinegotziak (Orain) Ogasun batzorde informatzailearen 2016ko azaroaren 24ko bilkuran eskatutako informazioa emateko, eta honako hau adierazten du:

- Otsailaren 5eko 45/2008 alkate-dekretuaren bidez, erabaki zen ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilak (IFK:B-20780243) Orioko Antilla hondartzako 1. zenbakidun eraikinean Orioko Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak ustiatzeko urteko kanonaren ordainketari dagozkion kontratu-obligazioez erantzuteko jarritako abala (2002. urteari dagokiona, 41.688,89 eurokoa) itzultzea.
- ARDORA ANTILLA SL entitate merkantilaren lege-ordezkaria Iñaki Agote Iñarra zen.



- Abenduaren 18ko 455/2009 alkate-dekretuaren bidez, erabaki zen MANDOEULIE SL entitate merkantilak Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren adjudikaziotik eratorritako erantzukizunari aurre egiteko jarritako abala (38.299,60 eurokoa) itzultzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasun, Pertsonal eta Kalitateko batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 24an egindako bilkuran egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EAJ), Salsamendi (EAJ), Del Hoyo (EAJ), Campos (EAJ), Cotado (EAJ) eta Bello (EAJ), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; gehiengo sinplea, beraz. Kontrako botoak: Iribar (EH Bildu), Lasa (EH Bildu), Igoa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**. Abstentzioak: Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

ONARTZEA aurreko urteetako eskubide onartuei baja ematea, deuseztapenagatik, erabaki honen azalpenean jasotakoaren arabera; guztira, 235.264,43 € dira, gehi BEZa eta errekarquak.

Emandako botoa azaltzeko, Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela, 2004an abiatutako prozedura negargarri baten aurrean gaudelako eta bi agintalditan arduragabekeria handiz jokatu delako; adierazten du, baita ere, gertatutakoaren erantzukizun guztia EAJ talde politikoarena dela.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, GIPUZKOAKO UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Gipuzkoako Ur Partzuergoaren estatutuen 3. artikulua aldatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Gipuzkoako Ur Partzuergoaren estatutuen 3. artikulua idazketa berriak honela dio, hitzez hitz:

3. artikulua. Nortasun eta gaitasun juridikoa.



1.- Kontsortzioak berezko nortasun juridikoa du eta jarduteko gaitasun osoa bere helburuak betetzeko.

2.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 120. artikuluan ezarritakoaren xedeetarako, Kontsortzioa Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita geratzen da. Foru araudiak atxikitze horren edukia eta norainokoa zehaztuko du.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 44. eta 49. artikuluetan, 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 35. artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalez gaindiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 10eko 6/2007 Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritakoa betez, hartutako erabakiaren berri ematen da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez eta udaletxeko iragarki-taulan jarritako iragarkiaren bidez. Espedientea, beraz, jendaurrean jartzen da, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikuluan interesdun gisa izendatutako norbanako zein taldeek.

d) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epean ez bada erreklamaziorik aurkezten, hartutako erabakia behin betikotzat joko da. Erreklamazioak aurkezten badira, udalbatzarrak erabakiko du horien gainean.

Erabakia behin betikoa denean, Gipuzkoako Ur Partzuergoari horren berri emango zaio, jakin dezan eta horren arabera joka dezan.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA, ORIOKO PARKE ETA LORATEGIAK MANTENTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIO PUBLIKORAKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAHIRU BAIEZKO BOTO; gehiengo absolutua, beraz]:**

ONARTZEA baldintza administratibo partikularren eta baldintza teknikoaren orria, Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzuaren kontratazio publikorako.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldintza orrien laburpen hau argitaratzen da:

1.- Erakunde adjudikatzailea.

- a) Erakundea: Orioko Udala.
- b) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzailetza

2.- Kontratuaren xedea.

- a) Kontratu-mota: zerbitzu kontratua.
- b) Xedearen deskribapena: Orioko parke eta lorategiak mantentzeko zerbitzua emateko kontratua, baldintza tekniko eta administratibo partikularren orriaren arabera.
- c) Epea: Lau urte. Urtebeteko luzapenak egin ahal izango dira; baina, nolanahi ere, iraupenak, luzapenak barne, ezin izango du sei urteko epea gainditu.

3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- a) Tramitazioa: Ohikoa.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Era: Lehiaketa.

4.- Lizitazioaren zenbatekoa.

Urteko 143.565,37 euro, gehi BEZaren %21 (30.148,73 euro). Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

5.- Bermeak.

- a) Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.



b) Behin betikoa: Kontratuaren adjudikazio zenbatekoaren % 5 (BEZa kenduta).

6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

7.- Dokumentazioa lortzeko.

Espedientearen dokumentazioa azter daiteke bai Oriko udal idazkaritzan eta bai Oriko Udalaren webgunean (www.orio.eus), Kontratatzailearen Profilean.

8.- Proposamenak aurkeztea.

a) Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2017ko otsailaren 27a.

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Klausula administratibo partikularren orrian zehaztutakoa.

c) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailatza. Herriko Plaza, 1. 20810 ORIO.

d) Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

7.- BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO KARELA KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ESKUBIDEAK LAGATZEKO HIRUGARREN BATZUEI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaur egun ERICA MARITZA VERGARA CHITIVA adjudikaziodunak dauzka Orioko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, eta hainbat tramite egin dira eskubide horiek FRANCISCO EMIGDIO ZELEDÓN ALTAMIRAN Ori lagatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- BAIMENA EMATEA gaur egun ERICA MARITZA VERGARA CHITIVA adjudikaziodunak dauzkan Orioko Karela kiroldegiko taberna-kafetegian Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak FRANCISCO EMIGDIO ZELEDÓN ALTAMIRAN Ori lagatzeko, udalbatzarrak 2003ko irailaren 30ean onartutako baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orrian ezarritakoa betez; zerbitzu horiek ustiatzeko eskubideak 2023ko azaroaren 25ean bukatuko dira.



2.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

8.- BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINEAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUAK USTIATZEKO ESKUBIDEAK LAGATZEKO HIRUGARREN BATZUEI.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaur egun IKER IRAZUSTA TORNO adjudikaziodunak dauzka Orioko hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak, eta hainbat tramite egin dira eskubide horiek MOLA MOLA BEACH SL sozietate merkantilari lagatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileak 2016ko azaroaren 25ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- BAIMENA EMATEA gaur egun IKER IRAZUSTA TORNO adjudikaziodunak dauzkan Orioko hondartzako 2. zenbakidun eraikinean Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuak ustiatzeko eskubideak MOLA MOLA BEACH SL sozietate merkantilari lagatzeko, Udalbatzarrak onartutako Baldintza Juridikoen eta Baldintza Ekonomiko-Administratiboen orrian ezarritakoa betez; zerbitzu horiek ustiatzeko eskubideak 2024ko uztailaren 1ean bukatuko dira.

Sozietate kontzesiodunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu Udalean: sozietatea eratzeko eskritura, Jarduera Ekonomikoen Zergaren alta eta dagozkion ziurtagiriak, gizarte-segurantzarekin eta Gipuzkoako Foru Ogasunarekin egunean dagoela ziurtatzeko.

2.- JAKINARAZTEA erabaki hau prozedura administratibo honetan interesa duten guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsioak adieraziz.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ADIERAZPEN INSTITUZIONAL BAT, DATORREN ABENDUAREN 3KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN OSPAKIZUNA DELA-ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpen instituzionalak, hitzez hitz, honela dio:

Zer egin dezaket nik euskararen alde?



Abenduaren hirua pozik bizitzeko eguna dugu euskaldunok. Duela berrogei urte arte gizartean gainbehera zihoan euskara hazkunde nabarian jarri dugu. Batik bat belaunaldi zaharrenen hizkuntza izatetik, belaunaldiarteko hizkuntza eta, batez ere, gazteen hizkuntza izatera pasatu da. Ingurune jakin batzuetara mugatuta egotetik sekula bereak izan ez dituen esparru sozialetan ere nor izatera. Europako hizkuntza zaharrena izatetik, hizkuntza modernoa eta gaur egungo gizartera egokitua izatera.

Euskara bizitzen ari den zabalkundea gizarte osoaren nahi eta ahaleginari esker gertatu da. Norbanako askoren eta kolektibo askoren ekimenari esker. Jende askoren eskuzabaltasunari esker. Gizarte osoak proiektu kolektibo gisa bereganatu izanari esker. Konpromiso publiko eta pribatuari esker. Gizartearen adostasunari esker.

Hizkuntza-elkarbizitza gizarte-elkarbizitzaren osagai egin dugu, gizarte-kohesioaren funtsezko elementu. Hizkuntzen berdintasuna eta norbanakoaren hizkuntza-hautua herritar guztion aukeraberdintasunaren oinarrian jarri ditugu.

Euskararen Nazioarteko Eguna badugu, baita ere, indarberritzeko eguna. Izan ere, gaur egun, oraindik, bi hizkuntza ofizialen berdintasun sozialetik urrun gaude. Euskarak eta gaztelaniak, erabilerari dagokionez, legezko aitortza berdina dute, baina gizartean egoera desberdina bizi dute.

Horregatik, urratsak ematen jarraitu nahi dugu. Bi hizkuntza ditugu ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan. Baina helburu izaten jarraitzen du, gizartean oro har, hizkuntzen arteko berdintasun sozialera iristeak. Hizkuntza-aniztasunaz harro gaudelako eta euskararekin munduko hizkuntzaaniztasunari egiten diogun ekarpenaz ere harro gaudelako. Hizkuntza-aniztasunak gure gizartea aberasten duelako, euskarak hizkuntza-aniztasuna aberasten duelako eta, beraz, gutako bakoitza aberasten gaituelako. Euskara, Etxeparek esan bezala, plazan nahi dugu, indartsu eta sendo nahi dugu bere lurralde guztietan.

Euskara hizkuntza erabilia eta bizia izatea: horra gure helburua. Guztion gogoia eta ahalegina eskatzen dituen helburua; helburu ilusionagarria; denoi dei egiten digun helburua: norbanakoei eta kolektiboei, herri aginteei, alderdi politikoei, langileen sindikatuei, enpresari-elkarteei, kirol, aisialdi nahiz kultur arloko elkarteei, gizartearen arlo desberdinetako erakundeei, eta abarri. Gustuko dugun helburua da, gustura hartzen dugun konpromisoa.

Horregatik, herri aginteok eta askotariko gizarte-eragileok elkar hartuta ospatu nahi izan dugu aurten Euskararen Eguna. Euskara eta hizkuntza-elkarbizitza sendotzeko konpromiso bat hartu nahi izan dugu, nork bere neurrikoa, nork bere ahalaren arabera. Horretarako, gure buruari galdera bat zuzendu diogu: "Zer egin dezaket nik euskararen alde?"



Adierazpen honen sinatzaileok galdera horri erantzun propioa eman nahi diogu, gure esparruan euskara modu edo neurri batean zein bestean indartzeko erantzun bat.

Era berean, herritar guztiak eta gizarte-eragile guztiak gonbidatu nahi ditugu galdera hori bera egitera eta nork bere neurriko erantzuna hausnartzera, guztion ekarpenak baitira baliagarri eta onuragarri euskararen biziberritzerako eta guztion arteko elkarbizitza sendotzeko.

Ospa dezagun, bada, pozik eta harro Euskararen Nazioarteko Eguna. Eta bizi dezagun aurrera begira euskara, gure artean eta egunerokoan, hizkuntza bizia eginez, "Zer egin dezaket nik euskararen alde?" galderari erantzunez eta galdera bera euskal gizarte osoan zabalduz

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA datorren abenduaren 3ko Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunari buruzko adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta galdera hauek egiten dizkio alkateari:

1.- Zertan da Orioko Antillako hondartzako 1 zenbakidun eraikinaren (Gure Aitona taberna) adjudikaziodunari diru-itzulketa egiteko espedientea? Itxura denez, planteatzen da, batetik, adjudikaziodunari 2.000 euro itzultzea, Antillako hondartzako barra-muturra indartu eta berregiteko lanek sortutako kalte ekonomikoengatik, eta, bestetik, planteatzen da beste diru-kopuru bat ere itzultzea, eraikin horren pergolan alkatetzaren aginduz egindako lanengatik.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du indarrean dauden lege-xedapenek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz erabaki zuela Iker Irazusta adjudikaziodunari pergolan lan batzuk eginaraztea, interes publikoko begi-bistako arrazoiengatik eta segurtasun publikoa bermatzeko. Agindutako lanak hauek ziren:

- Zutabe nagusiak eta bigarren mailakoak konpontzea.
- Errail bertikalak aldatzea.
- Itxiturak desmuntatu eta egokitzea.



- Pergolaren teilatua konpontzea.
- Matxuratutako tenkagailuak ondo jarri eta finkatzea eta korrosioaren kontrako geruza aplikatzea.
- Pergola guztia pintatzea.

Lan horien kostua 2.100 eurokoa izan zen, gutxi gorabehera, eta inbertsio-lanak direla kontsideratu daiteke.

2.- Joan den azaroaren 25eko adierazpen instituzionala dela-eta, bere talde politikoak faltan bilatu du gaia alde aurretik lantzea eta adierazpenaren testua beste talde politikoekin kontrastatzea, ados jarri ahal izateko.

3.- Udal langile bati hasitako diziplinazko espedienteari buruz ere galdetzen dio Emeterio Iribarrek alkateari. Bere talde politikoak ez daki alkateak dagoeneko hartu ote duen dagokion erabakia eta, beraz, adierazten du, alkateak gai horri buruz hartu beharreko erabakia hartzen ez duen bitartean, EH Bilduk ez duela parte hartuko Udaleko Kirol batzordearen bilkuretan.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du diziplinazko espediente hori aurreko agintaldian hasi zuela orduko alkateak eta agintaldi honetan bukatuko dela alkatearen ebazpen baten bidez. Alkateak dio udal idazkariak gaiari buruzko txosten juridikoa egiten duen bezain laster hartuko duela erabakia.

Aitziber Campos zinegotziak hartzen du hitza EAJren izenean eta idatzi hau irakurtzen du, hitzez hitz:

Azken egunetan, Orioko Alkate denaren aurka egindako adierazpen batzuen harira, Orioko EAJren taldea osatzen dugunok, zera adierazi nahi dugu:

- *Udal talde honek, Alkatea buru dela, legealdi honetan hainbat eta hainbat gai atera ditu aurrera.*
- *Hauek guztiak aurrera eramateko udal talde guztiaren lana dago atzetik, eta lan horren ondorioz Orioko Herriari onura ekarriko dien hainbat ekimen etortzen dira Udal Batzarretara Alkatearen eskutik.*
- *Gaiak aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da beste udal taldeekin hitz egin eta adostasunak bilatzea. Denok nahi dugu onena gure herriarentzat eta orain artekoak argi utzi du guztiok gaudela eztabaida eta akordioetarako prest. Ahalik eta adostasun maila handiena lortzea da gure asmoa.*



ORIOK OUDALA



- *Udal talde honek argi du egunerokoan hobetu daitezkeen elementuak egon badaudela eta horretan gabiltza egunero. Gure herriak merezi du eta gure onena ematea.*

Bide batez, komeni da mahai gainean jartzea, gure herrian bizi diren pertsonen bizi kalitatea hobetzea helburu dugunean, alderdikeriak eta pertsonalismoak albo batera utzi behar direla. Amankomunean dugun helburu honi ez dio batere onik egiten norbanakoen desprestigio hutsa bilatzen duten adierazpenek. Honek ez dio ezer onik ekarriko herriari, agian alderdi batzuei bai, baina Oriori ez, eta hori da gu gehien kezkatzen gaituena.

Alkateak hartzen du hitza eta esker ona agertzen du bere talde politikoak (EAJ) erakutsi dion babesagatik.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,